

2. Merkatuaren segmentazioa

Gure enpresaren funtsezko pentsamenduak bezeroetan zentratzen dira, haiek ez balute gure produktua erabiliko enpresa pikutara joango litzatekeelako. Gure produktua saltzeko bezeroen esparrua hamazortzi urtetik gorakoa izango da, baina zentratuko garen segmentuan hogeitahamar urtetik gorako bezeroak izango dira, haiek direlako kotxea geihen erabiltzen dutenak. Honekin batera, gure bezeroak, kotxean mugikorra ikusgai izan ahal izateko tresnak behar dituzte, ze hauek izango dira gure aplikazioa kotxean erabili ahalko luketenak.

Merkatuaren segmentazioari dagokionez, gure bezeroak, kotxea gidatzeko gai izan behar dira, horrekin batera parking publiko (Erakunde publikoena) edo pribatuen (Enpresa pribatuena) erabileraren beharra izan behar dute, horrela gure produktuak beraien beharra asetu ahal izateko.

Gure diseinua helduentzat eginda egongo litzateke, hau da, kotxea erabiltzen duten pertsoneri, horrela egingo ditugun iragarkiak helduei zuzenduta egongo dira. Publizitatea adingaineko segmentu bati egongo da bideratua. Erabilperna handiagoa izango denez adin tarte hauetan, diru iturri handiak ekar ditzake.